BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

803

AGINDUA, 2014ko otsailaren 6koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinen bidez esleitzeko prozedura orokorretik kanpo uzten baitira babes ofizialeko 105 etxebizitza. Etxebizitza horiek Sestaoko udalerriko Vega Galindon daude (sustapenaren espediente-zenbakia: EB2-1438/13-LC-000). Agindu honen bidez, orobat, etxebizitza horiek esleitzeko ohiz besteko prozedura bati hasiera ematen zaio.

EGITATEAK

1.– 2011ko urtarrilaren 12an, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.ri eman zitzaion Sestaoko udalerriko Vega Galindoko babes ofizialeko 210 etxebizitza sustatzeko behin-behineko kalifikazioa (Espedientea: EB2-1857/10-LC-000).

2.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko uztailaren 9ko Aginduaren bidez, etxebizitza horiek esleitzeko hautaketa-prozesuari hasiera eman zitzaion.

3.– Zozketa 2011ko azaroaren 10ean egin zen: 71 onartuak izan ziren, eta 483 bizikidetza-unitate banatu zituzten lau itxaron-zerrendatan, dauden kupoen arabera, bat kupo bakoitzeko:

– Desgaitasunak eta mugigarritasun urritua dituzten pertsonentzako etxebizitzetan ez zen batere onarpenik izan.

– 4 urteko antzinatasuneko eskaria duten bizikidetza-unitateentzako etxebizitzetan. 41ek onartu zuten, 79k uko egin eta 200ek itxaron-zerrenda osatu zuten.

– 25 eta 35 urte bitarteko bizikidez osaturiko bizikidetza-unitateentzako etxebizitzetan: 25ek onartu zuten, 30ek uko egin eta 137k itxaron-zerrenda osatu zuten.

– Gainerako etxebizitzetan: 5ek onartu zuten, 20k uko egin eta 146k itxaron-zerrenda osatu zuten.

4.– 2013ko ekainaren 3an, hasieran aurreikusitako sustapena eguneratzen eta aldatzen duen espediente berria izapidetu beharra zela eta, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.k uko egin zion behin-behineko kalifikazio horri.

5.– 2013ko uztailaren 23an, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak agindu bat eman zuen, Sestaoko udalerriko Vega Galindoko babes ofizialeko 210 etxebizitza esleitzeko prozedura bukatzeari buruzkoa (2013ko abuztuaren 16ko EHAA, 155. zk.).

Agindu horretan adierazten da ezin zaiola jarraipenik eman esleipen-prozedurari, behin-behineko kalifikazioagatik, eta esleipena jaso duten 71 pertsonei edo bizikidetza-unitateei eta sustapen horren itxaron-zerrendako 483 kideei baimena eman die dauden egoeran jarrai dezaten, Visesa Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.k Sestaoko udalerriko Vega Galindon eraikiko dituen babes ofizialeko etxebizitzak kalifikatzeko irekiko den espedientetik sortzen den esleipen-prozeduran.

6.– Desgaitasunak eta mugigarritasun urritua dituzten pertsonentzako etxebizitzek ez zuten batere esleitzailerik izan, izena emandako bi pertsonek uko egin zutelako. Beraz, aurreikusitako bost etxebizitza egokituak egokitu gabeko etxebizitzen kategoriara pasatuko dira.

Azalera-eskubideko erregimen orokorreko babes ofizialeko 105 etxebizitzetatik 71 kendu behar dira, aurreko sustapeneko (espediente-zenbakia: EB2-1857/10-LC-000) esleipen-prozeduran esleipena onartu zuten 71 pertsonei edo bizikidetza-unitateei esleitzeko.

7.– 2013ko abuztuaren 1ean, Visesa Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.k babes ofizialeko etxebizitzen behin-behineko kalifikazioa eskatu zuen Vega Galindoko babes ofizialeko 150 etxebizitzaren sustapenerako (espediente-zenbakia: EB2-1438/13-LC-000). 2013ko urriaren 10ean, Bizkaiko Etxebizitzaren lurralde-ordezkariak eman zuen behin-behineko kalifikazio hori.

105 etxebizitzetatik, 71k hiru logela dituzte, eta 34k bi. Lagapen-erregimena azalera-eskubidea da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak du agindu hau emateko eskumena, hala xedatuta baitago Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12.2 artikuluan.

Bigarrena.– Dekretu horren arabera, esleipen-prozeduretatik kendu beharko dira etxebizitza-premiak asetzeko ez diren babes ofizialeko etxebizitzak.

2013ko uztailaren 23an, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak agindu bat eman zuen, Sestaoko udalerriko Vega Galindoko babes ofizialeko 210 esleitzeko prozedura bukatzeari buruzkoa (2013ko abuztuaren 16ko EHAA, 155. zk.).

Agindu horretan adierazten da ezin zaiola jarraipenik eman esleipen-prozedurari, behin-behineko kalifikazioagatik, eta esleipena jaso duten 71 pertsonei edo bizikidetza-unitateei eta sustapen horren itxaron-zerrendako 483 kideei baimena eman die dauden egoeran jarrai dezaten, Visesa Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.k Sestaoko udalerriko Vega Galindon eraikiko dituen babes ofizialeko etxebizitzak kalifikatzeko irekiko den espedientetik sortzen den esleipen-prozeduran.

Esleipena jasotako pertsona edo bizikidetza-unitate horiek eta itxaron-zerrendako kideek dauden egoeran jarraitzeko, esleitzeko prozesu orokorretik kendu behar da sustapena. Prozesu hori Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduan araututa dago (agindu hori Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da). Eta sustapena kentzeaz batera, horretarako beren-beregi diseinatutako prozedura bat ezarri behar da, 39/2008 Dekretuaren 12.2 artikuluaren babesean.

Alde batetik, 71 pertsonek, eta beste aldetik, 483ek, bere momentuan egiaztatu zuten bete egiten zituztela arauan aurreikusitako baldintzak, eta, beraz, onartuak izan ziren esleipen-prozeduran parte hartzeko prozeduran. Prozedura horren prezioa Vega Galindoko huts egindako sustapeneko babes ofizialeko 210 etxebizitzak kalifikatzeko ebazpenean zehaztuta zegoen (espediente-zenbakia: EB2-1857/10-LC-000).

Beraz, ez da bidezkoa dagoeneko egiaztatu dituzten baldintzez aparte beste batzuk betetzeko eskatzea, ez eta hautatuak eta onartuak izan zireneko prezioak baino gehiago ordaintzea ere. Salbuespen batekin: etxebizitza-premia izan behar dute aurrerantzean ere, 39/2008 Dekretuaren 17. artikuluari jarraikiz; bestela, ezin zaie etxebizitzarik esleitu.

Hirugarrena.– Esandakoak esanda, etxebizitzak esleitzeko prozedurak honako hau izan behar du:

1.– Dagoeneko onartuak izan diren 71 etxebizitzentzat:

Etxebide-Etxebizitza Babestuak Esleitzeko Zerbitzu Publikoak egiaztatuko du pertsona guztiek eta bizikidetza-unitate guztiek betetzen dutela etxebizitzaren premiari buruzko baldintza.

Hala bada, Etxebizitzako lurralde-ordezkariak esleitzeko ebazpena emango du; horren jakinarazpenean, salerosketa-kontratua sinatzeko beharrezko agiriak aurkezteko epea ere adieraziko du, gehienez hilabetekoa izango dena.

Etxebizitza eskuratzeko baldintzak bete ezean, esleipena ukatu zaiela jakinaraziko zaie eta, hala badagokio, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja emateko prozedura hasiko dela.

71 pertsona edo bizikidetza-unitate horietakoren batek uko egiten badu, ukatutako etxebizitza sustapeneko itxaron-zerrendako kideei esleituko zaie.

2.– Gainerako etxebizitzetarako (hasieran, 34), eta aurrekoetakoren bati uko egiten bazaio, esleitzeko dauden etxebizitzak honela esleituko dira:

Etxebizitzako lurralde-ordezkariak esleituko ditu sustapen horretako itxaron-zerrendako 483 pertsonen edo bizikidetza-unitateen artean, logela gehien dituzten etxebizitzetatik hasita, eta gutxien dituztenekin bukatuta. Lehenengo, etxebizitza horiek egokiak diren bizikidetza-unitateen artean banatuko dira.

Hiru itxaron-zerrenda daudenez, bakar batean batuko dira; zerrenda horretan, itxaron-zerrendetako lehenengoak izango dira, honako hurrenkera honetan: antzinatasun-kupoa; 25 urtetik 35 urtera bitarteko kideak dituzten bizikidetza-unitateak; eta kupo orokorra. Gero, kupo horietako bigarrenak sartuko dira zerrenda horretan, eta abar.

Etxebizitzako lurralde-ordezkariak esleitzeko ebazpena emango du; horren jakinarazpenean, salerosketa-kontratua sinatzeko beharrezko agiriak aurkezteko epea ere adieraziko du, gehienez hilabetekoa izango dena.

Behin itxaron-zerrenda agorturik, sustatzaileak besterendu ahal izango dizkio hutsik dauden etxebizitzak, banan-banan besterendu ere, Bilboko Metropolitarreko eremu funtzionaleko edozein pertsonari edo bizikidetza-unitateri, etxebizitza horiek eskuratzeko legezko baldintzak betetzen baditu, eta etxebizitza horietakoren hutsik geratzen bada, gainerako eremu funtzionaletara bideratu ahal izango da.

Adierazitako legezko manuak eta horiekin bat datozen eta orohar erabilgarri direnak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.–Azalera-eskubidepeko erregimen orokorreko babes ofizialeko 105 etxebizitza esleipen orokorreko prozeduratik kanpo uztea. Etxebizitza horiek (espedientea: EB2-1438/13-LC-000) Visesa Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.k sustatu ditu, esleipena jasotako 71 pertsona edo bizikidetza-unitateri emateko asmoz, bai eta huts egindako sustapeneko (espediente-zenbakia: EB2-1875/10-LC-000) itxaron-zerrendako 483 pertsonei edo bizikidetza-unitateri ere.

Bigarrena.– 71 etxebizitza kentzea, esleipena jaso duten 71 pertsonek edo bizikidetza-unitateek esleipen-prozedura honetan dauden egoeran egoten jarrai dezaten.

Hirugarrena.– Gainerako 34 etxebizitzak eta aurreko 71etatik hutsik geratzen direnak esleitzeko prozedurari ekitea, agindu honetan xedatutakoari jarraikiz.

Laugarrena.– Sustapen honetako etxebizitzak lagatzeko araubidea azalera-eskubidekoa izango da.

Ebazpen honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 6a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.